

ZOKKETA BIDEZKO DEMOKRAZIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Atenas, K.a. 330. Aristotelesek (K.a. 384-322) *Politika* idatzi zuen. Eta obra horretan, beste eduki askoren artean, praktika demokratikorako arauak jaso zituen. Hona hemen bederatzi arauok laburbilduta:

- Magistratura guztiak guztion artean hautatzea.

- Guztiek bakoitzaren gainean agindu dezatela eta bakoitzak, txandaka, guztien gainean.

- Kargu publikoak zozketaz esleitu daitezela, guztiak edo esperientzia eta ezagutza teknikoak eskatzen ez dutenak.

- Pertsonak berak ez dezala behin baino gehiagotan kargu publiko bera izan, edo salbuespenezko kasuetan soilik izan dezala.

- Pertsona berak kargu publiko gutxi izan ditzala, gerrarekin lotutakoak izan ezik.

- Kargu publiko guztiak iraupen laburrekoak izan daitezela, ahal den neurrian behintzat.

- Hiritar guztiek, guztion artean aukerata, justizia administratzea.

- Herriaren Batzarrak gauza guztien edo garrantzitsuenen gaineko subiranotasuna izan dezala. Inolako kargu publikoak ez du subiranotasunik izango ezereen gainean edo, izatekotan, garrantzi gutxiko gaitan izango du.

- Kargu publiko bat bera ere ez dadila bizi bitartekoa izan. Eta bateren bat ge-



VATIKANOKO MUSEOA

'Atenasko eskola', Rafael (1510-1511). Aristoteles arkuaren azpian dago, zutik eta tunika urdina soinean, aldamentean Platon duela.

ratzen bada, kargutik kendu behar da, eta zozketagarri bihurtu, bozketa bidez aukeratu ordez.

Atenasen arau horiek indarrean jarri zituzten. Jakina, filosofoak "guztiak" aipatzen zituenean gutxiengoaz ari zen; IV. mendean Atikan 250.000 edo 300.000 pertsona inguru bizi ziren, hiritarren familiako kideak 100.000 ziren eta, horietatik, gizonezko helduak eta, beraz, Batzarrean parte hartzeko aukera zutenak, 30.000 inguru besterik ez.

Baina zozketa erabiltzen zuten kargu publiko gehienak banatzeko. 100 bat magistratura -nagusiki buruzagi militarrek eta kontulariak- bozkatzuz hautatzen zituzten baina gehienak, gainerako 600ak, zotz eginda banatzen zituzten.

Metodorik demokratikoena iruditzen zitzaizen, baita bozak erosteko ustel-

keria saihesteko bide egokia ere. Gainera aukera berdintasuna bermatzen zuten. Arriskuak ere bazituen: kargua egokitutako pertsonak ez zuten zertan alor horretan aritzeko gaitasuna izan. Horregatik, batzuen gabeziak besteen dohainekin berdintzeko, taldean egiten zuten lan. Finean, gehiago kezkatzen zuten boterea eta ondasunak esku gutxitan biltzeak, kargu batzuen gaitasunik ezak baino.

Bi milurteko geroago, besteak beste, Montesquieuk eta Rousseauk zozketa bidezko demokraziaren onurak aldarrikatu zituzten. Baina egun demokrazia eta zozketa lotzea zentzugabekeria iruditzen zaigu, kanpainetan dirua errekarra botatzen den, gaitasunik eza oztopo ez den eta ustelkeriari aurre egiten ez dion sisteman. ■



BLEKINGE MUSEUM

9.000 urteko arrain hartzitua

Adam Boethius Lundeko Unibertsitateko osteologoak munduko arrain hartzitu biltegi zaharrena, 9.200 urte ingurukoa, aurkitu du Suedia hegoaldeko Mesolito Aroko aztarnategi batean. Induskatutako eremuan 60 tona ur gezako arrain bildu zituztela kalkulatu du, eta "horrek adierazten du bertako gizakien dietak arraina zuela oinarri",

Journal of Archaeological Science aldizkarian idatzi duenez. Horrez gain, gizarte eskandinaviarrak garai hartan uste baino garatuagoak zeudela erakusten du aurkikuntzak. "Uste genuena baino askoz lehenago hasi ziren arrantzan eta arraina prozesatzen. Eskualdearen garapena garai berean Ekialde Ertainean zutenarekin pareka dezakegu". ■